

1. GAIA

1. Eman soziologiaren definizioa (Zer ikertzen du? Beste zientzia batzuekin konparatuta dituen berezitasunak)

Gizarte zientzien barruan sailkatu dezakegu Soziologia. Ez da zientzia naturala, ikerlan berezi bat daukalako. Ikerlan hori *gizartearen baitan gizakia eta gizakien arteko harremanak aztertzean* datza. Gizarte zientziekin konparatuta, hauek dira soziologiaren berezitasunak: ***gizakia abere soziala da, bere ingurune soziale tik isolatu gabe dago soziologiaren alde tik** (gizakia besteekin harremanetan egotea behar du bere osotasunean hazteko), ***gizakia eta gizartea bere osotasunean aztertzen du** (gizartea betidanik osatua dago, pertsona bat jaio aurretik. Soziologiak gizartearen ordenua ikertzen du gizarte horretako arauak gizakia sortuko dutelako, eta batzuetan horien aldaketa eman behar delako), ***soziologia gizakia eta gizartearen artean gertatzen den elkarrekintza guztiak interesatzen zaizkio** (gizarte guztietan gizakien arteko elkarrekintzak ez dira berdinak, eta soziologia horien azterketa egin behar du).

Soziologia beste gizarte zientziekin konparatuz gizakia eta gizartea ikuspuntu integral batetik aztertzen du. Sozio-abilitatearen eta elkarkoitasunaren baldintzak ezagutzeko egiten den ahalegin teorikoa da. Bere oinarritzko aztergaia gizartea da, zehazkiago: gizakiek eratzen dituzten elkarte, talde eta erakundeak. Aldi berean, soziologiak duen berezko aztergaia gizakia da.

2. Zer da GIZARTEA? (Aipatu 5 ingurune sozial nagusi eta azaldu bat)

Gizartea gizakien arteko harremanak sortutako ingurua da

ZIBILIZAZIO BAT: Gizarte mota bat da eta maila abstraktuen aldetik soziologiak hura azter dezake. Gizartean hainbat zibilizazio mota daude eta hauen artean desberdintasunak handiak dira.

HERRIALDE BAT: Herrialde bakoitza badauzka berezitasun batzuk singularrak edo berezkoak direnak. Hala ere, badaude ere komunean dituzten berezitasunak herrialde desberdinen artean.

ERAKUNDE BAT: Herrialde baten barruan badaude hainbat klase sozial batzuk eta klase sozial hauek arauak dituzte.

TALDE SOZIAL BAT: Herrialde batean 4 esparru nagusi daude: KULTURALA, EKONOMIKOA, SOZIALA ETA POLITIKOA eta esparru honen barruan beste errealitate txiki batzuk daude *talde sozialak* izango direnak.

BI PERTSONEN ARTEKO HARREMAMAK: Gizartean talderik txikiena da. Bi pertsona elkartzean ingurune sozial bat eratzen dela esan dezakegu. (*ZERGATIK? Hirugarren pertsona bat beraien elkarriketan sartu ezker, ordura arteko tonua, keinuak, klima ... guztiz alda daitekeelako*). Baina 2 pertsonen arteko harreman guztiak ez dira gizarte bezala kontsideratzen. Elkarrekintza mota hau gizartea dela kontsideratzen dugu, baldintza hau lortzen bada: aurrez aurretik kedada egon behar da finkatuta eta arau batzuek egon behar dira.

3. Soziologiaren izaera zientifikoari dagokionez, zergatik da soziologia zientzia bat?

Soziologia disziplina zientifikoa da, método zientifikoa erabiltzen duelako. Nahiz eta zientzia fisikoa bezala ez izan, soziologiaren ikertzeko metodo oinarria beste zientzien metodoen parekoa da, bere ikerlana ulermen arrazionala + objektiboa delako, eta hurrengo baldintza hauek betetzen dituelako zientzia kontsidera dezakegu: enpirismoa, teoria, irekitasuna, neutraltasun etikoa eta kritika.

OBJETIBOA DA, beti datu frogagarrietan oinarrituta egongo delako bere ikerlana.

- Aipatu 5 baldintza eta azaldu 2

1) ENPIRISMOA (Behaketa + Datu Frogagarriak)

behaketa eta datu frogagarrietan oinarritzen da. Soziologia zientzia enpirikoa da, gizarteari buruzko ezagutza guztia oinarritzko behaketaren bidez garatzen du. Erabiltzen dituen metodo guztiak, bildutako datuak konprobatzea dute helburu. Horretarako, datu horiel azterketa zehatzaren bidez ikertzen ditu soziologiak

2) TEORIA

Teoria zientifikoak, errealitate honetako lege eta erregularitasunak/ errepikapenak aztertzen ditu, eta bi faseetan burutzen da, prozesu elkar- eragin bati jarraituz, hau da; bi fase horiek elkarri eragiten diote.

*LEHENENGO FASEA: **DATU ENPIRIKOETATIK PROPOSIZIO TEORIKOETARA (errealitatea)**. Ikerlan enpirikoak ateratzen dituen datuek eta horien ondorio partzialak interpretatu ondoren, lege eta erregularitasuna ezartzean datza.

*BIGARREN FASEA: **PROPOSIZIO TEORIKOETATIK DATU ENPIRIKOEN ONDORIOETARA**. Teoriaren proposizioen bidez lan enpirikoaren datu eta ondorioak interpretatuko dira, aurreko teoria baieztatzeko ala ezeztatzeko. Konprobatzeko hasierako teoria zerikusia duen ondorioztatuko datuekin.

Teoriaren helburua bi fase horiek garatzea da.

3) IREKITASUNA Dogmatismoa deuseztatu

Komunitate Zientifikoak aztertu

Irekitasuna soziologia ez dela dogmatikoa, edo a-kritikoa, esan nahi du, izan ere disziplina ireki bat da. Aldez aurretik baieztatutako ikerlanen ekarpenek soziologiaren ezagutza eratzen dute.

Soziologiak zientzia gisa, ezin du edozein ikerketaren baieztapenak ontzat eman, gai berari buruz egindako beste ikerlanekin modu enpirikoan eta teorikoan konparatu gabe.

4) NEUTRALITASUN ETIKOA

Soziologiaren berezko metodologia moralki neutroa da. Soziologoak ezin du bere ikerketaren baieztapenetan gertaera edo egoera bat onetsi edo gaitzetsi. Ezin du epaitu ikertzen duena.

Neutraltasun etikoaren helburua objetibitatea da.

5) KRITIKA (Gizartearen kritika du abiapuntua + autokritika barne)

Soziologiaren helburua gizartearen kritika egitea da. Kritika horrek, zentzu subjektiboa dakar eta neutraltasun etikoa bermatzeko soziologiak autokritikari ekin behar dio. Hau lortzeko ezartzen ziren abiapuntu, metodologia eta eguneratze prozesu batean eztabaidatzen dira.

Idea honekin bukatzeko, kontuan hartu behar da, soziologoa bera ere gizarte partaidea izanik, gizartea baldintzatua izan daitekeela. Egoera hau gainditzeko, soziologoaren ikerlanak eta bere antolamenduaren legitimizatzeko baliabideak zalantzan jarri beharko ditu.

4. ikerketa zientifikoaren prozesua azaldu

Metodo zientifikoa gauza askok zuzentzen dute. Zientzialariak hainbat informazio bildu beharra dauka alde aurretik problematikari buruz. Geroago, hipotesiren bat formulatzen du (arretaz aztertutako baieztapen teoriko bat da hipotesia, zeinak gertakari ezagun guztiak beste gertakari batekin logikoki lotzen saiatzen da). Ondoren, hipotesia frogara behartzen da, behaketa zientifiko baten bidez. Azkenik, hipotesi bat baieztatu, baztertu edo berrikusi egiten da, zientzia garatuz.

- Aipatu prozesu osoa eta 2 garatu

1) ARAZOAREN DEFINIZIOA Ikertzea merezi duen eta zientziaren metodoz azter daitekeen arazo bat behar dugu. Abstraktuak, frogaezinak ala interesik gabekoak diren eta datu auki-ezinak dituzten gaiak ez ditugu inoiz formulatuko.

2) LITERATURA BERRIKUSPENA Denbora alferrik galtzea litzateke beste ikerlarien hutsegiteak errepikatzea. Arazo honen gainean egin diren ikerketen azterketa egitea egokia da.

3) HIPOTESIEN FORMULAZIOA planteatuko ditugun proposizioa edo proposizioak frogapean jarri ahal izango dira. 3 motakoak izan daitezke: deskriptiboak, korrelazionalak edo kausalak. Hau burutu ahal izateko hipotesien eduki zehatzak definitzea guztiz beharrezkoa da eta horretarako zenbait osagai erabiliko ditugu: kontzeptuak, aldagaiak eta aldagai bakoitzaren kategoriak, hala nola.

4) IKERKETARAKO DISEINUAREN PLANGINTZA Azpimarratuz aztertu behar dena hau da: zer den, zein datu erabili behar diren, non bilatuko ditugun datu horiek, nola bilduko ditugu datu horiek, nola prozesatuko diren datu guztiak, eta ikerketa nola egingo den.

5) DATUEN BILKETA Ikerketaren eskemaren arabera da datuen bilaketa hau, eta sarritan eskema aldatu beharra egongo da, ustekabeko zailtasunei aurre egiteko.

6) DATUEN ANALISIA Kasu honetan, bildutako datu guztiak, taula edo beste erregistro tresna baten bidez sailkatuko dira, eta hauek behatu ondoren bere errepikapenak, desberdintasunak, analogiak, etab. aterako ditugu, ondorio batera heltzeko.

7) KONKLUSIO LORPENA Pausu honetan, hurrengo galdera hauek izango dira baliogarriak pausua gidatzeko:

- Hasierako hipotesiak baztertu /onartu
- Emaitzak erabakigarriak diren ala ez
- Ikerketa honek gure ezagutzari gehitu diona
- Zer inplikazio duen teoria soziologikoarengan ikerketa hau
- Zeintzuk galdera eta iradokizun adierazi diren ikerketa honetatik geroagoko beste baterako.

5. Soziologiaren aztergaia: Zer da arazo soziala eta arazo soziologikoa? Jarri ezazu 2 adibide bakoitzeko

ARAZO SOZIALA: Zentzu orokorrean, gizarte ordenuaren edo ezarritako arauen kontra doana da arazo soziala, berdin dio arau horiek bidezkoak izan ala ez. (ADIBIDEZ: Agintarien edo administrazioaren ikuspegitik, zenbait gauza gaizki daudela jakitea).

ARAZO SOZIOLOGIKOA: Gizarte baten arau-sistema bere osotasunean ikertzea da “soziologikoa”, eta ikuspegi ofizial ez ezik, egoera zehatz batean parte hartzen duten talde sozial desberdinen ikuspegi guztietatik ere. (ADIBIDEZ: ingurune sozial bat nola dabilen, zeintzuk diren bere arauak, nolako baliabidez irauten duen harreman sozialen sistema honek (hautsi gabe), gizarte ordenua mantentzen eta kideen loturak kontserbatzen jakitea).

Soziologiari ez zaio interesatzen delinkuentzia, LEGEA baizik; ez zaio dibortzioa interesatzen, EZKONTZA baizik; eta ez zaio iraultza interesatzen, GOBERNUA baizik.

2. GAIA

6. Compte-ren ekarpenak aipatu. Bat garatu

1. Teologikoa (EUROPAKO ERDI AROAN ARTE): Mundua eta gizartea, Jainkoaren produktuaren dela ulertzen da. Gizakiak ez du zer eginik eta aldatzerik, dena Jainkoaren borondateak antolatuta eta erabakita dagoelako.
2. metafisikoa (ERRENAZIMENDUAN): Mundua eta gizartea ez da naturaz gaindiko edo jankozko kontu bat bezala ulertzen, ideia abstraktuen arabera baizik. (Hobbes-en hitzetan *gizartea gizakiaren izaera berekoiaren ondorioa da <<EL HOMBRE ES EL LOBO DEL HOMBRE>>*. Hau da, el ser humano es depredador por naturaleza.

Zientziarekin demostratu denez ezin da dena jainkotik e torri baina bai sinisten jarraitzen dutela jainkoan

3. zientifikoa (KOPERNIKO XVI, GALILEO XVII, NEWTON XVII-XVIII): Aurreko etapetan ematen diren ideia abstraktuen zinezkotasuna ezin da frogatu edo egiaztatatu. Metodo zientifikoari esker, ordea, mundu natural eta sozialari buruzko azalpenek errealitatearekiko harreman zuzenagoa daukatela edo ia berauek asmakeriak baino ez diren ziurta daiteke. **positibismoa**

7. Marx-en ekarpenak aipatu. Bat garatu

- Materialismo historikoa: marxek materia ekonomiko bat garatzea planteatu zuen krisiari azalpen bat emateko, krisiari azalpren bat emateko gai zena, eta horrekin batera, langileria bultzatu nahi zuen, bertan parte hartzera, aldaketa iraultzaile bat emateko, alde batetik, materialismoaren bidez, Marxek azaltzen du **gizartearen jatorria ekoizpena dela**, gizakiok bizi irauteko beharriak aurre egiteko eta baliabide materialez hornitzeko asmoz, beste gizakiekin harreman sozial egonkorrak eraikitzen ditugu, baliabideen ekoizpen prozesua ahalbideratzeko, beraz, harreman sozialen zentroa edo motibazioa da ekoizpena eta bizitza materiala dena bermatzea.
Ondorioz, modu materialak baldintzatzen du bizitza soziala, politikoa eta espirituala. Hau da, nola izango den bizitza materiala, hala izango da bizitza espirituala edo ideia mundua.
- Klase borroken teoria: Marxek argudiatzen du hurrengo hau: “betidanik humanidadearen historia, klase borroken historia da, jabeen eta jabetza ez dutenean artean ematen dena” esaldi hau ageri komunista argitalpenean agertzen da.
Zer da klase borroka? Gatazka mota bat non sortzen duen **ekoizpen baten soberakinak eta etekinak gizarte klase batek bereganatu nahi dituzten**. Kapitalismoan hori gertatzen da Burgesiaren eta proletarioen arabera. Nola ematen dira gizarte klaseak? Marxek dio, “ekoizpenaren bideak” edo “medios de produccion” (makinak, herramientak, lurrak...) zein jabetzak dituzten klase sozialek, botere banaketarekiko posizio dominatzailea dute (jabetzak dutenak, dominatzaileak dira eta boterea dute).
Historian zehar, baita kapitalismoan ere, klase jabego horrek eraikitzen du ginegitura bat edo superextruktura izeneko, hau da, berak asmatutako marko juridiko eta erregimen politiko zehatz bat jabeen interesak babesten dituen, horrela baiztatzen dute bere egitea eta botere osoa beste gizartekideen gainetik. Era berean, belaunaldiz- belaunaldi, bere boterea mantentzeko, justifikazio ideologiko nagusi bat zabaltzen du eta horrela bere boterea sozialki ontzat hartzea edo legitimatzea lortzen du (kapitalismoa).
Amaitzeko, historian zehar, betiko harreman mota ematen da, hau da, bi klase sozialen arteko gatazka, non etengabeko borroka sortzen den ekoizpen bide dituzten jabe eta lan indarrak dituzten artean, adibidez, noblezia eta nekazarien artean, kapitalismoa, burgesia eta langileen artean ematen da.

8. Durkheim-en ekarpe nak aipatu.

1. COMPTE-ren Ikuspegi positibista jarraitzen du.

2. Egintza soziala VS Ekintza soziala (WEBER)

3. Zientziaren beste funtzio bat FUNTZIO SOZIALA

4. Aztergai nagusiak:

- GIZARTE MORALA: Gizartea nola lortzen du bere ordenua eta antolamendu egonkor bat mantentzea?

- LANAREN BANAKETA: Elkartasun Soziala eta Kontzientzia Kolektiboa.

- “EL SUICIDIO” IKERLAN TEORIKO ENPIRIKOA: Zientifikoki frogatzea nola erabaki edo nahi pertsonalak / intimoenak ere zergati / eragin sozialaren bat badu beti.

5. “El Suicidio” ikerlanaren ondorioak irakurketa originala.

- Gizarte morala zertan datza?

Durkheim-ek, gizarte morala kontzeptua “*Nola lortzen du Gizarteak antolamendu egonkor bat eta bere ordenua mantentzea?*” galderari erantzuteko asmoz asmatu zuen.

Egile honen arabera, ez dago moral indibidualik eta gizarte morala dago. Gizakiak bere buruari ezartzen dizkion betebeharrak izatez, gizartearekiko betebeharrak dira. Honekin, esan dezakegu, gizartea arau moral multzo batez jabetzen dela taldearen biziraupena ziurtatzeko eta zentzu horretan, moralaren funtzio nagusia gizakiak talde zabalago batean integratzea da.

Alderantziz, baldin eta gizarte-kideek ez badute partekatzen komuneko moral bat, gizartea desagertzen da, kaos soziala sortzen delarik.

Marxekin konparatuz, ekonomia eta baliabide materialak eskuratzeko beharrezana da, eta ez gizarte morala, gizarte harremanak sortzen dituen eta ordenetan mantentzen dituen.

- Elkartasun mekanikoa eta organikoa garatu. Zertarako dira erabilgarriak gizarte langintzan?

1) ELKARTASUN MEKANIKOA: Elkartasun mekanikodun gizarteari dagokio eta 4 dira honen barruan nagusitzen diren ezaugarriak:

· Lan banaketaren aldetik, lanbideak ez dira hain espezializatuak, eta **gizartekide gehienek denetarik egiten dakite**.

· Harreman sozialak kontu afektiboetan, komuneko sentimenduetan, etab.-etan oinarrituak daude, besteak beste: **komunitateko sentimenduak**. Aurpegiz-aurpegiko harremanak ere ematen dira, esate baterako: familian, erlijioan... jendea elkar-eragin bat zeukan, ez zen harreman anonimoa.

- Elkartasun mekanikodun gizarte batean, ia kide guztiak partekatzen dute **kontzientzia kolektibo bera**.
- Moral sozial bakar honetatik desbideratzeak, heriotza edo guztiz baztertua egotea esan nahi duela uste dute gizarte mota honen kideak.

2) ELKARTASUN ORGANIKOA: Elkartasun organikodun gizarteari dagokio eta 5 dira honen barruan nagusitzen diren ezaugarriak:

- **Gizarte modernoetan agertzen da**, Industrializaziotik aurrera (Mendebaldeko gizarteetan, han eman baitzen Industri Iraultza).
- **Harreman sozialak bakoitzaren interesetan oinarrituak daude**, adibidez: elkargo (colegio) profesionaletan, enpresako lan harremanetan, erosle edo saltzaileen arteko harremanetan, etab.-etan eta harreman honek eraikitzen dituen lehenengo irizpideen artean interesa nagusitzen da. Ez dute sentitzen beste bati laguntzeko beharra, zergati sentimentalegatik edo gizarte presioagatik. Alderantziz, gizakiek edo kolektiboek beste batzuekin kooperatzen dute norberaren interesak lortzeko asmoz.
- Solidaritate organikoan, **bakoitzak badu bere lan espezializatua eta batak bestearen laguntza / kooperazioa behar du bere bizimodu egonkor bat aurrera eramateko**. INTERDEPENDENTZIA nagusi da, norbanakoak ezin duelako besteen kooperaziorik gabe bere bizimodua aurrera eraman. *Greba orokor batek, adibidez, erakusten digu noraino heltzen den interdependentzia kontzeptu hau.
- Elkartasun organikodun gizarte batean, **kontzientzia kolektibo berdina partekatzen duten gizakien kopurua txikiagoa da solidaritate mekanikoarekin konparatuta**. Horrek, lan esparru espezializatu bakoitzak baduela **berezko arau sistema** esan nahi du, orduan gizarte mota horretan (gizarte modernoan) mentalitate aniztasuna ematen da eta ez mentalitate bakar bat.
- Azkenik, kontzientzia kolektibotik desbideratzeak ez dakar heriotza edo bazterketa sozial osoa, partziala baizik; hau da, gizarte langileak bagara eta gizarte langintzak dituen irizpideetako bat burutzen ez badugu, ez dugu heriotza zigorra jasoko, bazterketa partziala baizik.

Gizarte langintzan, bi solidaritate mota hauek kontuan hartzeak beharrezkoa da, aurretik erabiltzaileak zer nolako gizarte motan bizi den jakiteko eta geroago berauen ikusmoldera moldatzea, biak elkarrekintza egoki batean egon ahal izateko.

- Zein da “suicidio” -aren ekarpena?

Durkheim-en azkeneko ekarpena “El Suicidio”-ren argitalpena izan zen. Ikerlan teoriko enpiriko horren ekarpena, zientifikoki, erabaki edo nahi pertsonalenak eragin sozialaren bat beti badutela frogatzea da. Ikerketa honetan, frogatu zuen gertakari indibidualen azpian beti dagoela arau edo egile sozialaren eragina.

9. Weber-en ekarpenak aipatu. Bat garatu

4 izan ziren Weberren ekarpenik nagusienak:

1) ANTIPOSITIBISMOA ETA SOZIOLOGIA ULERTZILEA: Durkheim-ek gizarte egitatearen (hecho social) objetibotasuna azpimarratu zuen; Weberrek, aldiz, **subjektibotasuna eta subjektuen ekiteko ahalmena azpimarratu zuen, hortaz: Weberren ustez, soziologiaren aztergaia ekintza soziala (acción social) da.**

Giza ekintzen interpretazio sozialak aztertzeko ahalmena da soziologiaren abantaila eta berezko berezitasunak, soziologiaren **ikertzeko gaiak ez dira objektuak, giza-elkarrekintzak baizik, eta pertsonekin berarekin baieztatu dezake errealitatearen behaketa.**

Weberren iritziz, soziologoek abantaila argia dute natura zientzialarien ondoan, zeren eta haiek (soziologoek) natura zientziarik ezin dute ulertu, adibidez: atomo baten portaera.

Azkenik, giza harremanak iraunkorrak direnean, badira zenbait esanahi gizaki bakoitzarengandik "itxaroten dena" determinatzen dutenak eta ekintza berak jaso ditzake ulermen ezberdinak testuingurua aldatuz gero.

2) "ETIKA PROTESTANTEA ETA KAPITALISMOAREN ISPIRITUA" OBRA NAGUSIENA: Kapitalismoaren garapenean funtsezko papera jokatu zuen Protestantismo- Calvinismoaren balioekin. **Protestantismoak eta bereziki Calvinismoak, jainkoaren fabore bihurtu zuen arrakasta materiala.** Etika protestanteak, erlijio jarrera bihurtu zituen indibidualismoa, bizimodu estua, aurrezkoa eta lanaren ohorea, eta kapitalismoaren sorrera eta garapena, bizkortuko zituzten jarrera dira horiek guztiak.

3) ESTRATIFIKAZIO SOZIALAREN TEORIA: Weberrek, **gizarte mailaketaren irizpideak ezarri zituen gizakiek komunitatearen barruan hiru elkarte mota osatzen dute modu hierarkiko batean bere estratifikazio sozialaren teoriaren bidez.**

3 elkarte mota daude:

- **Gizarte klasea:** harreman ekonomikoetan oinarritutako mailaketari dagokiona
- **Estamentua:** ohore edo prestigio sozialaren arabera sortutakoa
- **Alderdia:** boterean oinarritutakoari dagokiona

4) BOTEREAREN TEORIA: Weberrek aginte egiturak aztertzeko zuen interes nagusia egintza sozialaren zilegitasunarekin harremanetan dagoelako. Jarduera sozial nahiz politiko jakin batek onarpena jasotzeko dituen baldintzak (zeren menpe dagoen egintza horren ondorioak jasotzen dituztenen aldetik onartua izatea) aztertu nahi zituen.

Agintearen azterketan, Weberren abiapuntua menderapena (dominación) da. Weberren esanetan, **menderapena da aginte batzuek obedituak izateko probabilitatea**, baina menderapen horrek **zilegizko (legítimo) edo ez-zilegizko oinarriak izan daiteke:** hau da, batek, beldurrak eraginda, aginte bat obeditu lezake eta kasu horretan menderapena ez-zilegizkoa izango da. Baina Weberri

menderapen zilegiaren oinarriak interesatzen zaizkio (agintearenak). Egile honen iritziz, aginteak 3 oinarri izan ditzake, 3 aginte motak eragiten dituztenak.

- **Gizarte mailaketaren irizpideak azaldu.**

Gizarte klasea **aldagai ekonomikoaren arabera sailkatzen da**, eta 3 talde nagusietan era hierarkizatuan agertzen da: **maila altua, maila ertaina eta maila baxua**. Baldintzatuta ageri da, objektiboki, klase bakoitzaren kidetasuna, norberaren maila sozialaren arabera, hau da: **aberastasunaren, jabetzaren eta lanbidearen arabera daude bereiztuak klase sozialak**.

Estamentuan, aldiz, **prestigioa** edo begirune **sozialari dagokionez egiten da sailkapen hierarkikoa**. Besteengandik bereizten duten ezaugarrien artean 4 nagusitzen dira: *Sailkapena besteek egindako ebaluazioaren menpe atxikituta dago eta ez pertsona bakoitzak duen baliabide kuantitatiboaren arabera (kualitatiboa, subjektiboa baizik). *Estamentuaren kidetasunak komunitate sentimendu indartsuagoa dakar. *Estamentu bateko kideek indar biziz adierazten dute bizitza, estilo jakin bat gainerakoengandik bereizi nahian. (ADIBIDEZ: **Komunitate tradizionaletan**: zaharrek daukate maila gorena, gure gizartean ez bezala. **XX. Mendera arte**: Nobleak edo apaizak zuten maila gorena. **Gaur egun**: jabetza ekonomikoarekin askotan kontzientziatzen da mailaketa.

Azkenik, Alderdia aurki dezakegu, eta **honako hau boterea eskuratzeko interesen arabera salbatzen da**. **Alderdiek komunitate-sentimendu** indartsuena erakusten dute, aldi berean elkartzeko mota antolatua delarik. (ADIBIDEZ: alderdi politikoak, kirol klub-ak, elkargo profesioanalarak, etab aurkitzen ditugu).

- **Aginte egitura motak azaldu, haien arteko ezberdintasunak aipatuz.**

- AGINTE LEGAL- ARRAZIONALA: hau gizarte modernoan orokortzen da. Arau arrazional- inpersoneletan sinesteagatik onartzen da eta ez agintean dagoen pertsona bati edo tradizio bati. **Esan dezakegu Funtzionarioak edo formakuntza teknikoak dutenak egongo dira aginpidean**. (ADIBIDEZ: burokrazia aginte honetako eredu ideala dela. Sistema honek bi oinarri nagusi ditu: *teknikari kualifikatuak funtzio eta lanpostu antolamendua osatzen dute, hierarkiko eta eginkizuna burutu aurretik araututako den modua erabiltzen den bitartean. *jardun, arau eta erabaki guztiak beti idatzita agertzen dira eta hori despersonalizazio arriskua ondoriozta dezake.)
- AGINTE TRADIZIONALA: **Antzinako arauak belaunaldiz- belaunaldi transmititzeagatik** (eta geroago komunitateak baliaduntzat hartzeagatik) **onartzen da**. Arauak “**sakratuak**” edo aldaezinak izango dira eta leialtasun pertsonala inplikaturik beteko dira. Aginpean dauden gizataldeen artean ez funtzionarioak edo komunitateko sentimendu berbera partekatzen dutenak aurki ditzakegu. (ADIBIDEZ: erregea / jauntxoa, zaharren kontseilua edo patriarka [gehienbat ijitoak] aurki ditzakegu eredu nagusien artean).
- AGINTE KARISMATIKOA: Naturaz gairik edo aparteko ezaugarriak besteek atxikitzeagatik onartzen da. Aginte karismatikoa duena, **pertsona arrunt bat da, baina besteen mirespena lortu duena**. **Karisma indar iraultzailea denez, aginpean egongo dira pertsona mirestua jarraitzen dutenak, eta hauen norbanako / taldearen mentalitatea aldatzeko gai izango da, batzuetan, liderra**. (ADIBIDEZ: Ché Guevara edo Latin Kings

sektetan liderrak direnak aurki ditzakegu ereduen artean, beraien aginteak iraupen luzerik ez duelarik)..

10. Ikuspegi soziologiko nagusien artean:

- Azaldu 3 ikuspegi era laburrean.

Ikuspegi funtzionalista: Ikuspegi honetan gizartea talde sare bat bailitzan begiratzen da, hau da: kideen gehiengoak partekatzen dituen arau eta balore sail baten arabera, era guztiz ordenatuan parte-hartzen duen talde sare bat bezala. Sistema eragile armoniosu eta orekatu bati eusteko joera dauka: portaera arauak, premiei erantzuteko sortzen dira eta premia horiek aldatzean, portaera arau horiek galdu egingo dira. Ikuspegi honen arabera, talde edo instituzio bakoitzak funtzio batzuk betetzen ditu eta funtzionala, hau da: gizarteko kideentzat onuragarria, delako irauten du. Gizarte aldaketak gizartearen oreka iraunkorra hausten du, baina laster oreka berri bat lortzen da

Gatazkaren ikuspegia: Gatazkaren teorikoek pentsatzen dute gizartea etengabeko gatazkan aurkitzen dela talde eta klaseen artean. Gizartea, boterearen eta irabaziaren aldeko etengabeko borroka prozesu bat bezala ikusten dute bertan maila askotako pertsonak lehiakide gisa azaltzen delarik: klaseak, arrazak, naziotasunak eta sexuak barne. “Kontsentsua” artifizia da, bertan talde edo klase dominatzaileek beren balore eta arauak ezartzen dutelarik gainontzeko beste pertsona guztien gainean. Gatazkaren teorikoek aurreiritzi kontserbatzaile bat leporatzen diete funtzionalistei, hauek uste baitute “oreka armoniosu” hau onuragarri dela guztientzat, bistakoa izanik batzuek saritzen eta besteak zigortzen dituela. Gatazkaren teorikoen arabera talde dominatzaileek esplotatzen dituzten taldeak isilarazten dituzte gizartearen oreka armoniosuaren izenean hitz egiten dutenean.

Elkarrekintzaren ikuspegia: Mikrosoziologian erabiltzen den ikuspegia da gehienbat. Honen alde daudenen iritziz, pertsonak beraiek produktu sozialak izateaz gain, helburudun zerbait sortzaileak dira. Gizakiek gauzekiko edo besteekiko duten harremana beraien zentzu eta esanahietan oinarritzen da, Esanahi hori gizarte elkarrekintzatik sortzen da, eta horri egiten zaion interpretazioak alda dezake. Elkarrekintza sinbolikoaren jarraitzaileek metodo kualitatiboak erabili ohi dituzte, pertsonen beraien ekintzei ematen dieten zentzua ulertzeko teknikak baitira.

EBOLUZIONISTA IKUSPEGIA

- Aipatu 3 eta horietako bat garatu.

3 dira nagusitzen diren ikuspegi soziologikoak: **ikuspegi funtzionalista, gatazkaren ikuspegia eta elkarrekintzaren ikuspegia.**

- IKUSPEGI FUNTZIONALISTA:** Ikuspegi honetan gizartea talde sare bat bailitzan begiratzen da, hau da: kideen gehiengoak partekatzen dituen arau eta balore sail baten arabera, era guztiz ordenatuan parte-hartzen duen talde sare bat bezala. Sistema eragile armoniosu eta orekatu bati eusteko joera dauka: portaera arauak, premiei erantzuteko sortzen dira eta premia horiek aldatzean, portaera arau horiek galdu egingo dira. Ikuspegi honen arabera, talde edo instituzio bakoitzak funtzio batzuk betetzen ditu eta funtzionala, hau da: gizarteko kideentzat onuragarria, delako irauten du. (ADIBIDEZ: eskolak haurrak hezi, lanerako prestatu, egunaren zati on batean umeak zaintzeko eginkizunak gurasoen ordeztu egin, eta komunitateari kirol ikuskizunak eskaintzen dizkio. Aldi berean, eskolak zenbait funtzio betetzen ditu, hala nola: gaur egungo produkzio sistemak duen langile espezializatuen beharra, ama/aita langileek duten ume zainketa beharra eta aisialdirako entrenamenduak emateko beharra). Gizarte aldaketak gizartearen oreka iraunkorra hausten du, baina laster oreka berri bat lortzen da. (ADIBIDEZ: aitzinean, semealaba askoko familiak nahigarriak ziren, hala ere, heriotze tasak altuak ziren eta familia handiek bakarraren batzuk aurrera ateratzea segurtatzen zuten, baina seme alaba asko izateak langileak, laguntza eta zaharren segurtasuna ziurtatzen zituztenez onuragarriak ziren gizartea edo familia horretarako. Gaur egun, aldiz, industrialki garatuta dagoen gizarte superpopulatu honetan heriotze tasa eta lan fisikoa zientzi eta teknologiaren garapenak murriztu egin ditu neurri handietan. Horregatik, esan dezakegu gaur egun familia mota hauek ez direla beharrezkoak edo funtzionalak.)
- GATAZKAREN IKUSPEGIA:** Gatazkaren teorikoek pentsatzen dute gizartea etengabeko gatazkan aurkitzen dela talde eta klaseen artean. Gizartea, boterearen eta irabaziaren aldeko etengabeko borroka prozesu bat bezala ikusten dute bertan maila askotako pertsonak lehiakide gisa azaltzen delarik: klaseak, arrazak, naziotasunak eta sexuak barne. “Kontsentsua” artifizia da, bertan talde edo klase dominatzaileek beren balore eta arauak ezartzen dutelarik gainontzeko beste pertsona guztien gainean. Gatazkaren teorikoek aurreiritzi kontserbatzaile bat leporatzen diete funtzionalistei, hauek uste baitute “oreka armoniosu” hau onuragarri dela guztientzat, bistakoa izanik batzuek saritzen eta besteak zigortzen dituela. Gatazkaren teorikoen arabera talde dominatzaileek esplotatzen dituzten taldeak isilarazten dituzte gizartearen oreka armoniosuaren izenean hitz egiten dutenean.
- ELKARREKINTZA IKUSPEGIA:** Mikrosoziologian erabiltzen den ikuspegia da gehienbat. Honen alde daudenen iritziz, pertsonak beraiek produktu sozialak izateaz gain, helburudun zerbait sortzaileak dira. Gizakiek gauzekiko edo besteezko duten harremana beraien zentzu eta esanahietan oinarritzen da, Esanahi hori gizarte elkarrekintzatik sortzen da, eta horri egiten zaion interpretazioak alda dezake. Elkarrekintza sinbolikoaren jarraitzaileek metodo kualitatiboak erabili ohi dituzte, pertsonak beraien ekintzei ematen dieten zentzua ulertzeko teknikak baitira.
- EBOLUZIONISTA IKUSPEGIA**

- Funtzionalismoa eta gatazkaren teoria konparatu.

Funtzionalistak ezin du alde batera utzi esplotazioaren errealitatea, eta era berean, gizarteko arauak guztion onurarako ez direnik beti sortzen. **Gatazkaren teoriak ezin du argudiatu aberatsen eta behartsuen interes guztiak beti kontrajarriak direnik, gizarte talde guztiek beren elkarbizitzari eta biziraupenari aurre egiteko gutxieneko arau batzuk partekatzen dituztelako.** Hala ere, ikuspegi biak kontuan hartu behar dira gizartearen ulerpen osorako.

11. Zer da ALIENAZIOA? Eta ANOMIA? Nork asmatu zituen kontzeptu hauek?

ANOMIA bi solidaritate motekin batera ageri den kontzeptua da.

Gizarte tradizionalatik modernorako trantsizioak anomia ekartzen du, **betiko arau-sistemak bere zentsua galtzen duenean eta arau-sistema horren zentsua noraezean (norabiderik gabe) geratzen denean**, harreman tradizionalak bizi baldintza industrial eta hiritar berrietara egokitu behar direlako gertatzen da. (ADIBIDEZ: familia bat langabezian geratzen denean; familia baten barruan dibortzioa gertatzen denean). **ANOMIA ALDAKETA SAKON BAT GERTATZEN DENEAN SORTZEN DA.** Durkheimek asmatutako kontzeptua da.

3. GAIA

12. GIZAKIA; gizartearen ala naturaren proiektua da? Zergatik?

Gizakia, ikuspegi soziologikoaren arabera, gizartearen produktua, produktu artifizialea eta ez-materiala da.

Gizakiaren jaiotzetiko gaitasunen garapena ezin da ulertu prozesu indibiduala ala naturala balitz bezala, beste gizakien arauetara moldatzeko prozesuaren bidez burutu ezean, gizakia bere osotasunean ezin da garatu. Averon-go "ume basatia"-ren edo Gennie-ren kasuan, beraien portaera animalaren bezalakoa zen. Bi kasu hauetan, ez zituzten bereizten ongiaren eta gaizkiaren arteko ezaugarriak, ez baitziren kapazak beraien burua pertsona bezala ikusteko.

Pertsonok, jaio bezain laster, ez gara pertsona on / txar bezala izaten, ez gara bakea / gudaren aldekoak izaten, etab. Segun eta nolakoak diren gure gizartearen arauak, horrelakoak izango dira gure ohitura mentalak eta, ondorioz, gure pertsonalitatea.

- Eman gizarteratze prozesuaren definizioa.

Gizabanakoak bere garapenean bizi den gizartearen betebeharrak eta eskakizunetara moldatzeko era desberdinetan datza gizarteratze prozesua.

13. Zeintzuk dira gizarteratze prozesuaren mekanismoak?

Soziologiaren ikuspegitik prozesu eta mekanismoen dimentsio soziala azpimarratu da. 4 dira gizarteratze prozesuaren barruan dauden mekanismoak: imitazioa, gizarte koakzioa, apendizazioa soziala eta elkar-ekintza soziala.

- Guztiak azaldu eta bakoitze ko adibide bana jarri.

1) IMITAZIOA: Sozializazioa gizakiaren berezko aktibitatearen ondorioa da. Haurra taldearen portaerara moldatzen da eta inguruan dituen rolak barneratzen ditu, imitazioaren bitartez. Gizakia, jaiotzen denetik, imitatzeko joera automatikoaren produktua da gizarte-eraketa. Mentalki nagusien jokaera imitatzera bultzaturik aurkitzen da.

2) GIZARTE KOAKZIOA: Nortasunaren izaera soziala, kontzientzi soziala eta taldearen presioa eta koakzioa duten eraginaz aritzen da, gizakia taldearen arauak jarraitzeko beharturik dagoelako. Gizakia pasiboki moldatzen da gizartera, ez baitaio beste aukerarik gelditzen gizartetik at geratu nahi ez bada.

3) APRENDIZAIA SOZIALA: Jaiotzean, haurraren premiak oso sinpleak dira (jatea, edatea, lo egitea) eta denborarekin, haurra, oinarrizko arauak onartzen hasten da eta baita ere hauen arabera bere jokaera moldatzen. Rolak ikastera behartuta agertzen dira, baina portaera hau ez dira “era neutralean” agertzen. Geroago, arauak betetzea, ase-betetasun iturria bihurtzen zaio haurrari, arauak onartzera behartuta ikusten duelako bere burua eta hori burutzerakoan, nagusien munduarengandik aprobazioa, onarpena, asetasuna erdiesten duela konturatzen da. Aprendizai sozial hau eraginkorra izango da haurra motibatuta ageri denean, adibidez, nagusien pautak jarraitzerakoan eta nagusiek txalotu egiterakoan, jokabideen patroiak nagusitzen dira.

4) ELKARREKINTZA SOZIALA: Bestearen barneraketa-prozesuaren beharra norberaren kontzientziaren eraikuntzan dago. Azken hamarkadetan, gizarteratze prozesuaren azalpen klasikoa gainditzeko beharra nabarmendu da, izan ere haurra parte aktiboa hartzen duelako bere garapen sozialean eta elkarren arteko interakzioan bakarrik haurra ez delako sozializatzen. Norberaren kontzientzia eratzeko, beharrezkoa da bestearena barneratzea, horrela niaren sorkuntza eta gizartearen aurkikuntza gertakari bera delako.

- Gizarte langintzarako zein da eraginkorre na sozializaziorako?

14. Sozializazioaren 3 etapak. Bat azaldu (Noiz ematen da? Zeintzuk dira egileak? Zeintzuk dira dituzten ezaugarri nagusienak? Adibide bana jarri)

1.ETAPA/ 1. SOZIALIZAZIOA: Jaiotako momentutik haurtzarora arte ematen den etapa da. Egile nagusien artean gurasoak edo eskola aurki ditzakegu. Ezaugarrien artean honako hauek aurki ditzakegu: *modu inkontzientean gertatzen da, *kutsu afektiboa nagusitzen da, *

- Azaldu sozializazioaren egileak eta bakoitzaren eginkizunak.

15. Zer da INSTITUZIONALIZAZIO PROZESUA?

Instituzioa ez da eraikin bat, ez da pertsona multzo bat, ez da antolakuntza bat. **Instituzioa pertsonek garrantzitsutzat daukaten helburu edo ekintzaren bat lortzeko arau sistema bat da. Pertsonak beren egintzak burutzeko daukaten erabide egituratuak dira instituzioak.**

Instituzioak, gizarte bizitzaren ondorio gisa sortzen dira, hein handi batean plangintzarik gabe. Pertsonak euren premiari aurre egiteko era praktikoak bilatzen saiatzen dira; aurkitzen dituzte gorpuztu egiten diren arau egingarri batzuk, apurka, apurka, ohitura arautu bilakatzen direnak.

Denboraren poderioz (eta talde batzuek duten inposaketa indarraren ondorioz), arau hauek sineste eta aldeko ohiturazko gorputz bat eratzen dute berauek zurriz eta onesten dituen. Oinarrizko 5 instituzio nagusiak gizarte konplexuetan, honako hauek dira:

- - Familia
- - Erlijioa
- - Gobernua
- - Ekonomia
- - Hezkuntza

Gizarte modernoetan jakintza baliok eta erabideak hain inportanteak direnez gero eta arauak daudelarik, **instituzio zientifikoak** gehitzen dizkiogu zerrendari.

Ikertzaile gehienak bat datoz uste izatean gizarte modernoan ekonomi instituzioak beste edozein baino eragingarriago izan daitezkeela. Baina, ez bakarrik ekonomia, familia, adibidez, oso garrantzitsua da gaur egungo gizarteetan.

16. Zer da KULTURA?

Kultura ezagutza, sinesteak, artea, morala, legeak, ohiturak eta gizonak gizarteko kide gisa bereganaturiko beste hainbat gaitasun biltzen dituen konplexu bat da, hau da: gizarte bateko kideek sozialki ikasi eta partekatzen duten guztia da. Gizabanakoak gizarteko oinordekotzaren atal gisa hartzen du kultura, baina aldi berean, sar ditzake kulturaren hurrengo belaunaldien oinordekotzaren atala eta berrikuntzak ere.

Kultura zatika daiteke **kultura materialean** eta **kultura ez-materialean**.

KULTURA EZ MATERIALA: jendeak erabiltzen dituen hitzetan, daukan ideia, sinestetan eta jarraitzen dituen ohituretan datza.

KULTURA MATERIALA: objektu manufakturatuetan datza, hala nola: tresnak, altzariak, automobilak, eraikuntzak, errepideak, zubiak eta erabilia izan den edozein gai fisikotan. Kultura materiala, kultura ez-materialaren ondorioa da beti, eta hau gabe ez dauka zentzurik.

- Aipatu kultura ez-materialaren osagai nagusiak, azaldu horietako 2 eta jarri bina adibide bakoitzeko.

OHITURAK: Talde bateko kideen ohiturak dira, ohiko portaera normala eta betikoa. Elkarte biritza arazoz josia dago eta gizakiok egoera hauei aurpegi emateko zenbait soluzio edo portaera hautatzen ditugu. Gizarte ezberdinek era askotako portaera bideragarriak aurkitu dituzte, eta horregatik esan dezakegu herrien arteko ohiturak desberdinak direla. Gizarte talde batek, portaera bat, premia berezi bat asetzeko ohizko era onartzean eta horren errepikaketaren ondorioz sortzen dira ohiturak. Ohitura horiek, normalki, ondorengo belaunaldiei pasatzen zaizkie.

*Gabonak ospatzea. (Betiere era erlijioso edo erlijioso batean egin daitezken arren).

*Herriko jaiak ospatu /antolatzea.

TRADIZIOAK: Ideia sendoa da, ongiaren eta gaizkiaren inguruan egintza batzuk egintzen eta beste batzuk debekatzen dituenak. Tradizioak, sakratuak izan daitezke, bai erlijio aldetik, bai sendotutakoan, lege aldetik. Tradizio hauek pertsonaren burua balioetsi eta betikotzen dute askotan, eta hauek zalantzan jartzea lotsagabekeria edo horiek haustea barkaezina litzateke. Gazteei, gehienetan, tradizioak irakasten zaie, asimilatzeraino, hau da: gauza bat ikasi eta onartzea, era inkontziente batean gure erantzunen parte bihurtzeraino. Osorik asimilatzean, tradizio horiek portaerak kontrolatzen dituzte, psikologikoki debekaturik dauden egintzak burutzea oso zaila bihurtzen delarik.

*Burka/zapiaren erabilera.

*Zenbait janari edo produktu ez jatea (islam-aren kasuan).

INSTITUZIOAK/ERAKUNDEAK: Ohitura eta usadio multzoa da, giza eragiketa garrantzitsu batean oinarriturik dagoena. Giza harremanen sistema antolatua, balio eta ohizko prozedura batzuk gorputzeratzen ditu eta oinarritzko giza premia batzuk betetzen ditu. Gizarte konplexuetan oinarritzko 5 instituzio nagusi daude: familia, erlijioa, gobernuak, hezkuntza eta ekonomi aktibitatearen antolakuntza.

*Enpresa pribatua (ekonomiaren barruan instituzio bat da).

*Eliza (erlijio jakin baten sinesteak eta jokabideak onartzen dituen pertsonen erakundea da).

LEGEAK: Legeak tradizioak indartzeko balio duena da; hau da, nahiz eta zenbait pertsona tradizioak obeditzen dituzten "bidezkoa" dena egin nahi dutelako, baliteke beste pertsona batzuk zigor baten mehatxuarean daudelako obedituko litzuzkeela tradizio horiek. Soziologiari dagokionez, legeen analisia egiterako orduan 2 ikuspegi nagusitzen dira: *ikuspegi funtzionalista* (legearen azterketa tradizioen adierazpen gisa ikasten duena) eta *gatazkaren ikuspegia* (legea botereetsuen tresna gisa eta botereirik ez daukatenak kontrolatzeko erabilia dela ikusten duena). Bi ikuspegi hauek zuzenak dira, gizarte konplexuetan legeak tradizioak ezartzen eta gizarte sistema babesten duelako, eta badaudelako zenbait pertsona besteak baino pribilegio gehiago dituztenak.

*Eskolara joatea. (Zenbait familian izan ere, legea erdian ez balego, ez litzuzke beraien semeak eskolara bidaliko).

*Konstituzioa (Zenbait legeen multzoa da).

BALIOAK: Tradizioak ea egintza onak ala txarrak diren argitzeko ideiak dira. Balioak, esperientziak garrantzitsuak edo ez-garrantzitsuak diren argitzeko erabiltzen diren ideiak dira. Gizarte batentzat zenbait balio ontzat hartzen diren bitartean, beste zenbait gizarteetan txartzat hartuak izan daitezke.

*Bakea. (Europar balio garrantzitsutzat hartzen dugun bitartean, zenbait lurralde okupatueta negatiboa izatera bihurtu daitezkeelarik, guda nagusitzen duelako).

*Bortizkeria. (Nahiz eta gure erlijio /sinesteetan negatiboa negatiboa izan, Hooligans sinesteak dituztenentzat bortizkeriaren erabilera balorea izango litzateke).

17. Bereiztu zer diren BALIOAK eta ERAKUNDEAK.

Instituzioak/erakundeak ohitura eta usadio multzoa da, giza eragiketa garrantzitsu batean oinarriturik dagoena. Giza harremanen sistema antolatua, balio eta ohizko prozedura batzuk gorputzeratzen ditu eta oinarritzko giza premia batzuk betetzen ditu. Gizarte konplexuetan oinarritzko 5 instituzio nagusi daude: familia, erlijioa gobernua, hezkuntza eta ekonomi aktibitatearen antolakuntza. Balioak aldiz, tradizioak ea egintza onak ala txarrak diren argitzeko ideiak dira. Balioak, esperientziak garrantzitsuak edo ez-garrantzitsuak diren argitzeko erabiltzen diren ideiak dira. Gizarte batentzat zenbait balio ontzat hartzen diren bitartean, beste zenbait gizarteetan txartzat hartuak izan daitezke. Futbolari dagokionez, balioen artean kokatuko genuke ariketa hau, izan ere futbola pertsonon beharrian batzuk asetzen ditu, balioak bezala, eta aldiz erakundeak ez.

18. Bereiztu GIZARTERATZEA, AKULTURAZIOA, etab.

GIZARTERATZEA/ENKULTURAZIOA: giza nortasuna duen pertsona bihurtzen duen ikaskuntza prozesua da eta gizartearen arau eta balore-sistema baten barnerapenean datza, gizarte horretan integratzeko asmoarekin. Bizitzaren hasieran ez dago nortasunik: hau da, organismo fisiko bat existitzen da, baina ez pertsonaren zentzurik. Giza nortasun hau gizartetik edo taldetik kanpo garatzea ezinezkoa da, izan ere, honen ondorioz atzerapenak dituzten pertsonak, antisozialak edo asozialak diren pertsonak aurki ditzakegu (Genie-ren kasua).

AKULTURAZIOA/TRANSKULTURAZIOA: talde sozial batek berezko kultura alde batera uztea eta beste talde sozial batera edo beren kulturara moldatzean datza. Ondorioz, talde sozial honen identitatea guttiz aldatzen da. (Kolonizazioa adibidez).

AZPI-KULTURA: (batzuetan hiri-tribua ere deiturikoa) gizarte baten kultura orokorrarekin elkartutako portaera arauen multzoa da baina hala ere, harengandik bereizten dena. Ohitura, estetika, jarrera, hizkera edota sinesmen desberdinak eta, neurri batean, autonomoak dituen giza talde da, gehienetan hirietan garatzen dena.

KONTRA-KULTURA: azpi-kultura bat da ezberdina ez-ezik, zehazki kontrajarria gizartearen kultura dominatzaileari dagokionez; hau da, kontra-kultura, kultura nagusiaren kontrako mugimenduak dira.

- Zer da azpi-kultura eta kontra-kultura? Jarri 2 adibide bakoitzeko.

Azpi-kultura (batzuetan hiri-tribua ere deiturikoa) gizarte baten kultura orokorrarekin elkartutako portaera arauen multzoa da baina hala ere, harengandik bereizten dena. Ohitura, estetika, jarrera, hizkera edota sinesmen desberdinak eta, neurri batean, autonomoak dituen giza talde da, gehienetan hirietan garatzen dena.

*Gotikoak

*Rockeroak

Kontra-kultura azpi-kultura bat da ezberdina ez-ezik, zehazki kontrajarria gizartearen kultura dominatzaileari dagokionez; hau da, kontra-kultura, kultura nagusiaren kontrako mugimenduak dira.

*Gizatalde alternatiboak (ekologistak)

*Gizatalde alternatiboak (hippie-ak)

4. GAIA

19. Zer da ESTRATIFIKAZIOA?

Soziologiak “gizarte estratifikazio” terminoa gizarteetan eta gizataldeen artean dagoen desberdintasunaren araberako egitura iraunkorrek deskribatzeko erabiltzen du

Gizarte estratifikazio terminoak modu hierarkiko eta mailako batean eta gizarte ko behe eta goi mailaz hitz egiten du, aberastasun, botere edo prestigioaren jabetzaren banaketa desberdina eta adin, sexu, arraza edo erlijioaren araberako mailaketa aintzat hartzen duelarik. Maila bakoitzeko kideek bizitza aukera jakin batzuk izan ditzake, baita pentsatu, jardun eta sentitzeko modu berdin samarrak izateko joera ere, eta identitate eta kidesun komuna dute beren estratuko gainerako kideekin. Ezaugarri horiek bereizten dute estratu bakoitza gainerako estratuetatik.

20. Azaldu estatus atxikia eta lortutako estatusa.

- **STATUS ATXIKIA:** Jaiotzetiko ezaugarrien arabera ezarritako statusa da, gizabanakoaren hobespena, ahalmena edo baliabideak kontuan hartzen ez dituen. Pertsonen adinaren, sexuaren, arrazaren edo beste jaiotzetiko ezaugarri baten arabera atxikitzen zaie kokapen soziala da. (ADIBIDEZ: umea edo zaharra, gizona edo emakumea, zuria edo beltza...). Erregea pribilegioekin jaio da eta berdina da merezi dituen ala ez, edo bere jarduerari ongi betetzeko kapaz den ala ez. Adina bakoitzari atxikitzen zaizkion betebeharrak edo eskubide zehatz batzuk umeei helduarekiko obedientzia, 16 urte arte lan ez egiteko (helduei balorapen sozial handiagoa atxikitzen zaie gazteei, umeei edo zaharrei baino).
- **STATUS LORTUA:** Gizabanakoaren hautaketaren, ahaleginen edo ekintzen bidez lortutako status-a da. Gizabanakoak bere merituei esker eskuratzen dituen kokapen eta balorapen soziala, izan ere. (ADIBIDEZ: lehendakariari atxikitzen zaizkion boterea lortu du, egindako ahalegin edo merituei esker).

11. galdera: Zer da Alienazioa? Nork asmatu zuen kontzeptu hau?

13.2 galdera: Gizarteratze prozesuaren mekanismoen artean, gizarte langintzarako zein da eraginkorrena?